

EZKIO-ITSASO / Izandako erantzuna dela eta, bi ipuin kontaketa herrian

Gustokoak izaten dira gure herrian ipuin kontaketak eta gaur eta bihar arratsaldean bat oso berezia aurrera eramango da herriko liburutegian.

Ipuin kontaketa berezia izango da ingelesez izango delako, besteak beste, eta honen kontalaria Sarah Turtle izango da.

Hasiera batean 5-12 urte bitarteko umeentzat eskaini zen ingeleseko ipuin kontaketa hau, parte hartzaileen kopurua murriztua izango zelarik (20 lagun inguru). Dena den, umeak izena ematen hasi ziren eta kopurua asko handitzen zela konturatu ziren. Honen ondorioz, eta konponbide bat bila-tzeko asmoarekin, bi talde egin eta bi egun desberdinetan kontaketa egitea erabaki zuen Sarah-k.

Horrela, lehenengo saioa gaur arratsaldeko 17:00etan izango da 5-9 urte bitarteko umeentzat; eta bigarrena bihar ordu berdinean aurrera eramango da, orduan 9-12 urtekoek parte hartuko dutelarik.

Ipuin kontaketa hau tailer baten moduan antolatu du Sarah Turtle-ek eta ziur asko umeen gustokoa izango dela.